zuhaitz baten irudiak ageri dira, hauetan atalen izenak kokatu behar dituzte. Ondoren fruta eta barazki batzuen irudiak ageri dira hitz batzuen ondoan, honetan egin behar dutena zein atalari dagokion elkartu behar dute.

2. Jarduera. Zer naiz ni?

Jarduera honetan ikasle bakoitzak momentu batean “zer naizen” den asmatu beharko du. Irakasleak frutak, barazkiak eta loreen irudiak izango ditu. Lehengo ikaslea gela osoaren aurrean aterako da, irakasleak bere bizkarrean irudia ipiniko du eta gelakideei galderak egingo dizkie, galderak honakoak izan al dira, adibidez:

“Berdea naiz? Ezer egin gabe jaten naute? Apaingarria naiz?”

Gelakideek bakarrik “bai” edo “ez” erantzun dezakete, irudia duen ikasleak asmatu arte.

3. Jarduera. Asmakizunak asmatzen

Saioarekin bukatzeko asmakizunekin jarraituko dugu baina oraingoan irakasleak irakurriko ditu eta ikasleak asmatu. (XI.Eranskina)

8. SAIOA Barazkiak ingeleraz

- Helburua
 - Barazkien eta tresneriaren izenak ingelesez ikastea
 - Entzumena, Irakurmena eta ulermena lantzea
- Arloak
 - Hizkuntza eta Ingurunea
- Baliabideak
 - Fitxa (X.Eranskina)
 - Fitxa (XI.Eranskina)
 - www.languageguide.org
- Saioaren iraupena
 - ordu 1 eta 10 minutu

- Saioaren garapena:

Gaur egun interneteko informazio gehiena ingelesaz dago, hortaz, goazen ikastera Barazkien izenak eta tresneria ingelesez!

1. Jarduera: Hiztegia

Hasteko barazkien hiztegia landuko dugu, horretarako barazkien zerrenda fitxa banatuko zaie (XI.Eranskina). Irakasleak barazki bakoitzaren izena esan eta idatziko ditu arbelean, ikasleak irudi bakoitzaren azpian izena idazteko. Irakurri ondoren binaka jarriko dira eta bata besteari galdera batzuk egingo dizkio. Galderak honakoak izango dira:

- What kind of vegetables do you know?
- What kind of vegetables do you prefer? Or you don't like anyone?
- Could you describe your favorite vegetable?

Ondoren talde osoa elkartuko da eta banan banan ikasle bakoitzak binaka egondako ikaslearen gustuak esango ditu.

2. Jarduera. "Friends from the Vegetable Patch" testua

Testu bat banatuko zaie eta irakasleak irakurriko du beraiek testua aurrean izanda, ulertzen ez dituzten hitzak azpimarratuko dituzte eta irakasleari galdetuko diete. Ondoren testu azpian dauden galderari erantzungo dute.

3. Jarduera.

www.languageguide.org orrialdean sartuko da irakaslea eta guztion artean hiztegia landuko dute. Honetan entzumena landuko da eta beraiek errepikatuko dute, gero eskua altxatuta barazki horren deskribapen egokia egingo du ikasleren bat. Horrela irakasleak jakingo du ongi edo gaizki egin duen eta arbelera aterako da beste barazki bat hautatzeko eta bere ikaskideren batek eskua altxatuta horren deskribapena egingo du, horrela ikasle guztiak egin arte .

9. SAIOA. Baratzean hasi!

- Helburua
 - Barateza lantzeko lurra garbitu eta prestatzea
 - Baratzeke lanetan gorputza modu egoki batean mugitzea
 - Elkarlana bultzatzea eta baloratzea
- Arloak
 - hezkuntza fisikoa
- Baliabideak
 - Eskularruak, pala txikiak, poltsak, arrastelu bat
- Saioaren iraupena
 - ordu 1 eta 10 minutu
- Saioaren garapena:

1. Jarduera. Garbiketak

Saio honetan benetan lan fisikoa hasten da, baratzea jarriko den lurzorura joan eta gela osoa elkartuko da lanei buruz hitz egiteko. Lehenik eta behin ereiten edo landatzen hasteko behar diren aurreko lanak zeintzuk diren guztion artean adostuko ditugu. Irakasleak egin beharreko lanak paper batean apuntatuko ditu, hala nola, harriak, kristalak, belarrak... kendu eta plastikozko poltsan sartu edo organikoa dena txoko batean utzi ongari bezala Ondoren gelakideak taldetan jarriko dira, talde bakoitzak lan baten ardura hartuko du. Adibidez, batzuk harriak kendu, beste batzuk belarra moztu e.a.

Lurra prestatzen hasteko talde bakoitzak lan baten edo gehiagoren ardura hartuko du eta lana modu egoki batean aurrera eramatearen ardura izango du. Talde berean antolamendu ezberdinak egongo dira eta horiek beraien artean adostuko dituzte irakaslearen laguntzaz.

Irakasleak lanak egiteko mugimendu egokiei buruz hitz egingo die, hala nola, giharrak ez mintzeko egiten diren posturak.

Lanak, zaborrak kentzea, harriak kentzea, belar txarrak ateratzea, dauden zuhaitzen beharrezko adarrak moztea, erratza zementutik pasatzea ... izango dira.

Ura dagoen txokoa ongi dagen ikusi behar da, orain dela denbora dezente erabil gabe dago horregatik agian ez dago behar den bezala .

Kontuz ibili behar da hainbat gauzekin, hala nola, zoruan zuloak ez egitea, dauden inurriak errespetatzea, beste taldeen lanetan traba ez egitea ...

Belarra moztu ondoren baratzeke tokiren batean usteltzen utziko da, horrela etorkizunean ongarri gisa erabiliko da.

Ondoren eta bukatzeko lurra guztion artean irauli egingo dugu aireztatu daitezten, berriz baratzerara bueltatu egiten garenean hobe izateko.

Azkenik gelara bueltatuko gara eta zer landatuko den erabakiko da. Gomendagarria dena da; Letxuga, porrua, tipula eta piperrak. Leku handia ez dagoelako eta Apirilean eta maiatzen lantzen dena delako. Aurrerago, maiatzetik aurrera, tomateak landuko dira. Guzti hau ikasleek beraien "baratze koadernoan" apuntatuko dute.

*Momentu honetan irakasleak, eskolako laguntza ekonomikoarekin, erabakitako landareak erosiko ditu. Kantitatea, landare bat ikasle bakoitzarentzat minimo izango da. (Tipulak eta porruak 50ka saltzen dituzte baina leku gutxi okupatzen dute hortaz guztiak landatu al dira).

*Irakasleak lan prozesu osoari argazkiak aterako ditu

Hurrengo saiorako jogurt poteak eta dilisten edo babarrunen haziak ekartzea eskatuko zaie.

*Irakasleak, jarrera egokia, baikorra eta arduratsua izan den baloratuko du eta izan diren gabeziak hurrengo baterako jasoko ditu.

*Egokitzapen kurrikularra. Saio honetan baratzea garbitzerako orduan, taldeetan jarriko direnez, mugitzeko ezintasuna duen ikaslearen taldeak kate bat osatuko dute, hau horrela, batek harriak lurretik hartuko ditu, besteari pasatuko dio eta azkenik eskorgaren ondoan egonen den ikasle elbarrituari pasatu dio hor utziz. Belar txarrak kentzerako orduan gauza bera egingo da baina kasu honetan mugitzeko ezintasuna duen ikasleak belar txarrak konposta ontzian utziko ditu. Horrela ikasle bakoitzak bere

egin beharrak izango ditu.

10. SAIOA. Musikaz gozatu!

- Helburua
 - Musikarekiko interesa piztea
 - Naturaren soinuak ezberdintzen jakitea
 - Naturarekin musika sortu ahal dela jakitea
- Arloak
 - Musika
- Baliabideak
 - Fitxa (XIV.Eranskina)
 - www.youtube.com/watch?v=iZjLXtHscug
 - Plastiko ontziak
- Saioaren iraupena
 - 50 minutu
- Saioaren garapena

1. Jarduera. Natura entzuten

Saio honekin hasteko naturaren soinuak entzungo dituzte. Honetan, lurrean etzango dira edo eserita baina begi itxiekin soinuak entzungo dituzte. Lehengo entzuketa batean ez dute ezer egin behar, eta gela osoak entzuketa eta gero zer entzun duten kontuko dute. Bigarren entzuketa batean zer entzun duten idatzi egingo dute. Hirugarren bat entzun eta gero zer gustatu zaien eta zer ez komentatuko dute denen artean eta baratzean entzun ahal diren soinuak aipatuko dituzte.

2. Jarduera. Musika sortzen

Oraingoan baratzean joango dira eta hiru taldetan jarriko dira. Talde bakoitzak objektu bat hartuko du musika sortzeko helburuarekin.. Hiru talde daude, alde batetik harriak dituztenak, bestetik lurra plastikozko ontzietan dutenak eta azkeneko taldeak makilak dituztenak.

Gelara joango dira eta irakasleak harriekin daudenei erritmo bat emango die, makilak dituztenei beste bat eta lurra dutenei azkeneko bat. Hasieran talde bakoitzak bakarrik egingo du soinua ondoren hiru taldeek orkestra bezalako talde bat sortuko dute, bakoitzak bere erritmoa jarraituz.

11. SAIOA. Landareak birsortzeko modu ezberdinak

- Helburua
 - Landareak birsortzeko modu ezberdinak ezagutzea
 - Haziarekin esperimintatzea
- Arloak
 - Ingurunea
- Baliabideak
 - Jogurt ontziak
 - Haziak
 - Kartoi mehea, kotoia, plastikozko ontzi garden bat
 - Fitxa (XV.Eranskina)
 - Fitxa (XVI.Eranskina)
 - Baratze koaderno eta arkatza
- Saioaren iraupena
 - Ordu 1 eta 10 minutu
- Saioaren garapena

1.Jarduera

Ikasleek egun honetarako eskatutako haziak eta jogurt ontziak ekarriko dituzte eskolara eta ekarri ez dituztenentzat irakasleak ekarri izan ditu. Lehenik eta behin landareak birsortzeko modu ezberdineko fitxa (XV.Eranskina) emango die eta guztion artean irakurriko da. Horrela baratzean landuko denari buruz eta hau nola lantzen den gutxika

ikasiz, hau da, haziak ereiten, erraboilak lurperatzen edo adaxkak egiten ...

Fitxa honetan dagoen 3 galderari erantzun zaie, bakoitza bere erantzuna idatziz. Ondoren hutsuneak falta zaizkion testua beteko da.

Testua irakurri ondoren esperimentua egingo da, jogurt potea hartu, kotoia sartu eta haziak erein egingo da, ureztatu eta ikasgelako leku eguzkitsu eta epel batean ipiniko da. Segidan etiketa batean ikasle bakoitzaren izena, hazi mota eta data jarri eta itsatsi.

Jogurt poteak alde batean utziz, behaketarako txokoa egingo da. Gelako txoko bat aukeratu. Honetan ontziak utziko dira

Segidan lehengo behaketa aurreko jarduera bezalakoa izango da baina honetan landarea sortu aurretik gertatzen den prozesua behatu ahal izango da, potea gardena izango delako.

Hau irakasleak prestatuko du, ikasle guztien aurrean. Nola prestatu; Moztu kartoi mehea, plastiko ontzian erraz sartzeko moduan. Plastiko ontzi hau gardena eta handia izango da. Kartoi mehe horren gainean kotoia zabaldu eta bil ezazu. Ondoren egin duzun bildukin hori ontzi barruan sartu. Gero jar itzazu haziak kotoiaren eta ontzi gardenaren artean. Ondoren kotoia busti eta bota ur pixka bat ontzian, 2 edo 3 zentimetro-raino. Ontzian sartu baino egun bat lehenago haziak uretan beratzen jartzea komeni da.

Ondoren fitxa behatzeko taularen fitxa (XVI. Eranskina) banatuko zaie, hartu eta dagoen lehengo galdera erantzun. Arretaz azter dezaten saio ontzian gertatzen diren aldaketak eta fitxa honetan astean bitan behatutakoa idatziko dute, baita ere marrazki bidez adierazten.

*Irakasleak esperimentuko prozesuaren argazkiak aterako ditu

12.SAIOA. landareen kontuak eta lurzorua antolaketa

- Helburua
 - Matematika baratzeko problemetan erabiltzen dela ikustea
 - Neurketak modu erreal batez egitea
- Arloak
 - Matematika
- Baliabideak
 - Sokak eta makilak
 - Fitxa (XVI.Eranskina)
- Saioaren iraupena:
 - Ordu 1 eta 10 minutu
- Saioaren garapena:


1. Jarduera. Landareak erosteko aurrekontuak!

Nahiz eta irakasleak landareak erosi, haurrek aurrekontuen kalkulua egingo dute alde batetik, erosiko dena zenbat kostatuko den ariketa problema bat egingo da, bigarren problema batean baratzearen duten plano aterako dute eta geometria kontzeptu batzuk landuko dituzte, kontzeptu espazialak ikusiz eta errealitateko lekuan oinarrituko dira. Horretarako dagokion fitxa (XVII.Eranskina) emango zaie.

2. Jarduera. Landatzera goaz!

Azkeneko ariketan baratzera joango dira landatuko dutena non jarriko duten erabakitzeko eta lurzorua prestatzeko.


Lurzorua prestatzeko, bi makilekin eta soka batekin ilarak egingo dituzte. Makil bat lurrean sartu eta sokaz lotu, ondoren soka hori beste punta batera eraman eta horretan bigarren makila sartu. Bi makilen artean soka tente bat geratuko da eta horrela ilara zuzena gertuko da non barazkiak landatuko diren.



Barazkien arteko neurriak kalkulatzeko ikasleek hirugarren problema matematikoa

dute, hau beraientzat egokituta dago. Irakasleak bere kalkuluak egingo ditu jakiteko neurketa errealak zein diren

Ikasleek hirugarren makil bat eskuan hartuko dute, makila dagoen ilararen punta batean kokatu eta soka jarraituko dute, eskuetan hirugarren makila izango dute eta eskuetan duten makil honen bakoitzeko distantzian, lurrean, zulo bat egingo dute. Ilara bukatuta, zulo bakoitzean landareak landatuko dituzte.



Landare guztiak landatu ondoren ureztatu behar da. Eta hau da baratzea!!

*Egokitzapen kurrikularra. Honetan lurzorua makilez eta sokaz neurtzen ari diren momentuan, mugitzeko ezintasuna duen ikasleak kasu izan behar du, berak izango baita neurketak ongi edo gaizki egiten dituzten arduraduna.

Landatzerako orduan, irakasleak baratzerara mahai bat eramango du eta ikasle honek lorontzi batean bere landarea landatuko du haur guztiek bezala.

13.SAIOA. Gure elikadura

- Helburua
 - Zer jaten dutenaz ohartzea
 - Baratze jakituriaren konparaketa
- Arloak
 - Plastika, ingurunea
- Baliabideak
 - Fitxa (XVIII.Eranskina)
 - Fitxa (XIX.Eranskina)
- Saioaren iraupena
 - Ordu 1 eta 10 minutu

- Saioaren garapena:

1. Jarduera. Gure elikadura ikusten

Saio honetan, proiektuko lehengo saioan banatutako elikadura taula aztertuko dugu. Ikasleek proiektu honen zehar egunero bazkaldu dutena apuntatu izan dute. Datu guztiak aztertuko ditugu, izan diren aldaketak jakiteko. Ikasle bakoitzak barazkiak eta fruta jan duten egunak berdez margotuko dituzte. Ondoren gela osoak honi buruzko balorazioa egingo du.

2. Jarduera. Birpasatu eta marraztu ikasitakoa

Saio guztiei amaiera emateko aurrekoetan bukatu gabe gelditu diren ariketak egingo dituzte. Ikasle bakoitzaren erritmoa ezberdina denez, fitxa osagarri bat (XVIII.Eranskina) emango zaie, horrela dena bukatuta dutenek ere zerbait egiteko izango dute. Fitxa hau birpaso modukoa denez, klasean egiten ez dutenek etxera eramango dute.

Ondoren baratzeari buruz jasotako datuekin baita bizi izandako esperientziarekin baratz bateko marrazki bat egingo dute.

Hasierako marrazkia (asmatua) eta orain egindakoa (erreal) konparatuko dituzte

3. Jarduera. Laneko antolamenduak

Proiektua bukatu arren hasieran esan bezala baratz batean dauden lanak denboran zehar luzatzen dira, hau da, mantenua dago. Horregatik oraingoa lanaren antolaketa egingo da. Antolamendu taula emango zaie (XIX.Eranskina) klase osoak adostu du eta bukatzean bakoitzak bere baratzeko koadernoan idatziko du, berari tokatzen zaiona azpimarratuz eta arduraz egiteko.

14.SAIOA. Baratzeko argazki erakusketa

- Helburua:
 - Argazki oinak idazten ikastea
 - Denboraren orden kronologikoaz jabetzea
 - Materiala sailkatzen jakitea
 - Talde lanetan errespetuz aritzea
- Arloak
 - Hizkuntza, Plastika
- Baliabideak
 - kartulina
 - Argazkiak
 - Margoak
- Saioaren iraupena
 - Ordu 1 eta 10 minutu
- Saioaren garapena:

Ikasleek baratzeari buruzko jarduera, batzuetan, egindako argazkiak mural baten bidez erakutsiko dituzte. Taldekako lana izango da, eta argazki oina idatziko dute gero ikastolako pasabidean paratzeko eta modu honetan ikastolako komunitateak jakiteko, azkeneko momentu arte, baratzean, zein den bigarren mailako ikasleek egindako lan prozesu guztia.

3.6 Saioen ebaluazioa / Evaluacion de las sesiones

Ebaluazioa hezigarria eta jarraitua izango da, ebaluazioaren helburua ikasleen ikaskuntza prozesua baloratzea da, hortaz, etengabea izango da. Irakasleak, ikaslearen gaitasunen garapena ebaluatuko du eta ikas prozesuaren behaketa egingo du, ikasleek ikasten dutena eta aurkitzen dituzten zailtasunak ezagutzeko eta dagozkion egokitzapenak egiten.

Gelako eguneroko zereginetan, ebaluazioan, sartuta egongo da, ikaskuntza prozesua ebaluatu nahi delako eta ez soilik azken emaitza. Honetarako irakasleak saio bakoitzeko errubrika taula bat beteko du:

Taula 5. Ikasleen ebaluazioa

Jarduera : _____ Ikaslea: _____	Ez	Hala hola	bai
Interesa jartzen du:			
Jarduera bakoitzeko helburuetara ailegatu da.			
Talde lanetan kooperazioa eta errespetuzko jarrera du			
Partze hartze egokia du. Galdetzen du.			
Materiala ongi zaintzen du			

Proiektu honen ebaluazio bat, hau da, hasieran dakitena eta bukaeran dakiten arteko ikaskuntzaren konparaketa izanen da. Honetarako irakasleak, ahalik eta datu gehien lehengo saiotik eta ikas prozesu osoan zehar ikaslearen idazki, kontaketa eta bizipenak baita, joera, portaera eta parte hartzea ere jasoko ditu .

Eta azken aurreko saioen (13.Saioan) marrazkien arteko ezberdintasuna nabaria izango da. Lehengoan, baratzari buruz zekitena marraztu behar izan zuten, bere gustuko baratzea, ezagutzen zutenaren arabera. Azken aurrekoan, hainbat kontzeptu, bizipen eta ariketak e.a. e izan ondoren, berriz baratzea marraztea eskatzen zaie. Bien arteko aldeak, irakasleak ikusi beharko ditu, zer barneratu duten eta zer falta zaien antzemanaz.

Autoebaluazioa kontutan hartuko da, jardueretan irakasleak galderak egingo baititu, alde batetik izandako sentsazioez eta bestetik aurreko jardueretan ikasitakoaz galdetuko du, modu honetan ikasitakoa berpiztuz. Guzti honek komunikazioa indartzen du.

Irakasleak, beste aldetik, jarduera bakoitzeko beste errubrika bat jasoko du baina kasu honetan proiektu hau hobetzeko helburuarekin.

Taula 6. Saioen ebaluazioa

Jarduera : _____	Ez	Hala hola	bai
Jarduerak koherentzia dute			
Jarduerak jarraitzea erraza da			
Jarduerak ikasleak motibatu du			
Egin beharreko aldaketak			

Azkenik oinarritzko gaitasunak lortu diren jakiteko, ebaluazio irizpideak funtsezko erreferente izanen dira, honetarako taula hau erabiliko da:

Taula 7. Ebaluazioa

OINARRIZKO GAITASU- NAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	BAI	HALA HOLA	EZ
Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ahoz komunikatzeko gai da. 2. Idatziz adierazpen egokia du. 3. Ahoz zein idatzizko testuak ulertzen ditu. 4. Hiztegia ezagutu eta egoki erabiltzen du. 5. Tresnerien lexikoa barneratu du. 6. Barazkien izenak ingeleraz ikasi ditu. 7. Galderak modu zuzenean idazten ditu. 8. Behatzen duena modu egoki batez azaltzen du. 9. Bere iritziak eta pentsamenduak azaltzen ditu. 			
Matematikarako gaitasuna	<ol style="list-style-type: none"> 1. Bi zifren gehitzea eta kenketa menperatzen du. 2. Biderketa ulertzen du. 3. Hamartarren erabilera ulertzen du. 4. Neurketak modu teoriko zein praktikoz egiteko gai da. 			
Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna	<ol style="list-style-type: none"> 1. Barazkiak eta hauen izenak erlazionatzen ditu. 2. Herramienten izenak eta funtzioa ulertzen du. 3. Hazi baten zikloa ezagutzen du. 4. Landareen ezaugarriak eta bizi funtzioak ezagutzen ditu. 5. Baratzeko lurra lantzen badaki. 6. Baratzeko lanaz interesa jartzen du. 			
Gaitasun soziala eta herritartasuna	<ol style="list-style-type: none"> 1. Talde lanetan aktiboki parte hartzen du. 2. Talde laneko jarrera egokia du eta errespetuz jokatzen du. 			
Artea eta kultur gaitasuna	<ol style="list-style-type: none"> 1. Musikarako interesa jartzen du. 			

	<ol style="list-style-type: none">2. Entzumenetan isiltasuna mantentzen du.3. Taldeko arauak errespetatzen ditu4. Txukuntasunez egiten ditu lanak
Ikasten ikasteko gaitasuna	<ol style="list-style-type: none">1. Interesa adierazten du gelan2. Baratzean interesa eta jarrera aktiboa adierazten du3. Lan egiteko gogo nabaria da4. Koadernoan modu egoki batez dauka.
Autonomia eta ekimen pertsonala	<ol style="list-style-type: none">1. Lanetara aurreratzen da.2. Lanak autonomiaz egiten ditu3. Beharrezko lanak egin ditu4. Eskatutako lanak egin ditu

ONDORIOAK ETA EZTABAIDA IREKIAK /CONCLUSIONES Y CUESTIONES

Amaiur ikastola publikoko lehen hezkuntzako 2. mailako ikasleentzako “Baratzea, proiektu osasuntsua eskolan” lanaren balizko proiektuari amaiera emateko, ikuspegi teoriko pedagogiko eta akademiko modu logiko batean garatuz eta gai honi buruz, jakitun batzuen (Piaget , Vigotsky...). teoria eta adibideen bitartez lan honen proposamena ulertu eta ezagutu daiteke.

Garatutako lana laburtuz, hausnarketa eta azkeneko gogoeta eginez zenbait ondorio hezkuntza-proposamenetik sortuak, ateratzea, ez dago soberan , filosofia sakontzeko eta orain arte azaldutako irizpideak eta iritzia indartzeko.

Lan osoan zehar, behin eta berriz esan dudanez, ingurune-hezkuntza ,haurrari, elikadura osasuntsu baten gaineko informazioa eta heziketa ematea, oinarritzko gauza da, hortaz, kurrikulumaren barruan sartua egon beharko du elikadurari buruzko ezagutzaren garrantzia handia bada, honen gabeziak dakartzan ondorioak gutxiagoko gauza ere ez da eta. Gainera ikas-prozesuaren zehar ikasleak osasun eta elikaduraren arteko lotura ongi ulertu eta barneratzeko beharrezkoak diren behaketa eta ulermenaren gaitasunak landuko dira.

Haurren ezaugarri psikologiko zein fisikoak ezagutzuz, baratze ekologikoa bera, motibagarria dela lehenengo hezkuntzako maila guztietan, esan daiteke.

Baratzeak haurrari Naturarekiko kontaktua eskaintzen dio, irudimena askatuz. Trebetasun guztiak erabiltzera bultzatzen du eta modu ezberdinetan, bai ahoz bai idatziz, besteekin komunikazioa sortzen laguntzen du baita esperientziak eta bizipenak partekatzen ikas komunitate osoarekin, ikaskide, irakasle, guraso, lagun eta familiakoak.

Baratze proposamen hau garapen gradual, pausatu baina etengabekoa izango da jarduera desberdin askorekin gela barruan zein kanpoan lan egiteko, pentsatuta dago. Jardueretan behaketa eta esperimentazioa ugaria izango da lehentasuna izanik.

Lan proposamen hau, beste aldetik irekia izango da, alegia edozein mailako ikasleek aukera izango dute beraien jarduerekin sartzeko ekarpen berriak gehitzeko. Proiektu osoa aberats daiteke, gai zehatz bati buruzko kanpoko mintzakideak gonbidatuz, edo

sendabelar erakusketa, ikastaroa...eginez edota gaixotasunen argazkiak ikusi, gaixobaten testigantza entzun eta abar..

Proposamen berri eta desberdinak onartuko dira, zailtasuna, pedagogia eta maila desberdinetako izanda ere. Kurrikuluaren egokitzapenak, betiere, errespetatuz.

Proiektu honetan zeharka moduan, zenbat gai landuko dira ikastetxean, halaber: Kontsumoa, balioak, elkarbizitza, autonomia eta lankidetzeta .

Beti ahaztu gabe gai honen arrazoi nagusia: Gizakiok ingurunearekin ditugun harremana eta mendekotasuna.

Proiektu hau, Txileko eskola batean praktikak 2 egitean jaio zen, nire hango esperientzia eta bizipenetatik, alde batetik eta Amaiur praktikak 3 ikastolako patioan, ikasle batzuekin naturari buruzko izandako mintza kasual batean, bestetik, hurrek duten ezagutza faltaz ohartu nintzen.

Honetaz gain, nire baitan naturarekiko dagoen sentimenduari lotua eta oinarrizko ezagutza delakoan egonez, ikastetxeko beheko mailetatik programazio barruan egon behar den zerbait dela uste dut.. Ildo honetatik inkesta bat egin nuen eta honen grafikoak aztertu ondoren, Landarez zerbait dakiten hurrek, herrietan edo aitonen baratzetan ikusita baitute dela konturatu nintzen, beti gelaz kanpo.

Ondorioak ateratzen, ikasleen ezagutza mailan desberdina da, batzuek naturaz eta landarez zerbait baitakite, beste batzuek, berriz, ez eta aldea, gela barruan nabaritzen da, bai informazio mailan, bai ikaskuntza mailan ere.

Para acabar el trabajo “Baratzea, proiektu osasuntsua eskolan” pensado, en principio, para 2. nivel de primaria de la Ikastola pública Amaiur, habiendo desarrollado en un análisis ordenado y lógico todos los aspectos teóricos, pedagógicos y académicos, recogiendo además teoría de distintos autores en el tema como Piaget, Vigotsky...en donde desde el punto de vista de cada uno he podido entender y desarrollar la propuesta aquí presentada.

No está de más, echando una mirada atrás y a modo de resumen del trabajo realizado, hacer diversas consideraciones surgidas desde la misma propuesta educativa a modo de reflexión que ahonden en la filosofía y refuercen los conceptos y criterios hasta ahora expuestos.

Este proyecto, nace de mi experiencia y vivencias propias, en las prácticas realizadas en éste mismo nivel en una escuela pública de Chile por un lado y de la casualidad en la relación con los alumnos en el recreo de la ikastola Amaiur, por otro. Avalado a su vez por mi convencimiento de la necesidad y validez de una correcta interrelación entre naturaleza y alimentación y de la importancia de una adecuada formación básica de la misma en la escuela.

Aprovechando la circunstancia de una protección de corcho alrededor de los árboles en el patio escolar, en conversación informal con alumnos de distintas edades, queda de manifiesto la falta de información y el desconocimiento que algunos niños tienen sobre las plantas y la naturaleza. Aquellos niños que saben algo sobre el tema, manifiestan haberlo adquirido fuera del aula, en huertos del pueblo, o de los abuelos.

La conclusión a la que llegué después de hacer las gráficas, tal como detallo en los antecedentes una a una, es que parte de los alumnos saben, algo sobre las plantas y la naturaleza aunque aprendido fuera del aula por lo que se genera diferentes niveles de información y por tanto de aprendizaje.

Puedo decir que el proyecto está iniciado en parte, he realizado una encuesta de recogida de datos, una visita con los alumnos a una huerta ecológica, la puesta en común de lo observado, valorado y aprendido en la misma trabajando en definitiva la motivación en los niños de cara a la creación de una huerta escolar en el propio centro.

Iniciado el proyecto, se supone que en cursos posteriores, el profesorado dispondrá del mismo para aplicar, modificar o añadir aquello que considere necesario para un buen desarrollo del mismo.

Tengo que valorar gratamente la actitud participativa de los alumnos, sus ganas a la hora de responder así como su curiosidad por aprender sobre el tema.

Como a lo largo de toda la exposición he ido justificando, me parece la educación ambiental y lo que ello conlleva, una necesidad vital y básica, por lo tanto obligada a ser integrada en el currículum. La información y formación sobre una alimentación saludable que a lo largo de la enseñanza básica obligatoria, dote al niño de la capacidad de observación y comprensión necesarias para conocer e interiorizar la importancia de una alimentación adecuada y las consecuencias que la falta de ésta tendría para la salud de cualquier persona.

Si atendemos a las características tanto físicas como psicológicas de la personalidad de los niños, podemos pensar que la propuesta de la huerta ecológica es, en sí misma, motivadora para todos los niveles de la educación primaria.

Ofrece el contacto con la naturaleza, permite dar rienda suelta a la imaginación, invita a la manipulación y utilización de todas las destrezas y habilidades manuales, anima además a una comunicación oral o escrita, ayudando a compartir experiencias y vivencias con toda la comunidad educativa: compañeros, amigos, y familia.

Este proyecto planteado para un desarrollo gradual, pausado pero continuo, recoge muchas actividades diversas dentro y fuera del aula en donde la observación y la la experimentación han de ser abundantes y variadas, estando abierto a nuevas propuestas de trabajo de diferente contenido, dificultad, metodología...etc y a la incorporación de otros grupos de alumnos. Pudiendo enriquecerse con la realización de actividades puntuales: charlas, exposiciones sobre plantas medicinales o sobre enfermedades causadas por una mala alimentación o la visita de alguna persona en contacto con enfermos, incluso de la propia persona que cuente su experiencia.

Es por todo ello que podemos decir que es una muy buena herramienta educativa, que permite llegar y ahondar en todas las áreas del conocimiento académico, pudiendo trabajar de un modo u otro parte de cada una y todas las asignaturas.

Estando en el siglo XXI y disponiendo de todos los avances tecnológicos que nos permiten llegar y tener acceso a la información de los lugares más remotos, debemos volver atrás a recoger y beber de las fuentes de la agricultura tradicional en este caso, para establecer un puente de unión que nos permita beneficiarnos de ambas culturas, la antigua y la moderna.

ERREFERENTZIAK / REFERENCIAS

Bueno, M. (2002). *El huerto familiar ecológico*. Barcelona: Integral.

Cañal, P; Garcia, E; Porlan, R, (1986). *Ecología y escuela, teoría y práctica de la educación ambiental*. Barcelona: Laia.

Florez, J. (2009). *Agricultura Ecológica. Manual y guía didáctica*. Madrid: Mundi-Prensa Libros, s.a

Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua (2007. *Curriculum. Lehen Hezkuntza* (I. eta II Liburukiak). Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fonda.

WEBGRAFIA

[Eskuragarria 2014/03/02] <http://www.agroecologia.net>

[Eskuragarria 2014/04/03] www.ammci.org.mx/revista/pdf/Numero3/4art.pdf

[Eskuragarria 2014/03/11] Blog.tiching.com/heike-freire-en-educacion-el-contacto-con-la-naturaleza-es-vital

CEIDA (Centro de Educación e investigación Didáctico Ambiental). *Huerto escolar*.

[Eskuragarria 2014/03/11]: <http://www.hezkuntza.eigv.euskadi.net>

[Eskuragarria 2014/04/12] www.explorable.com/es/investigacion-empirica

[Eskuragarria 2014/04/12] www.explorable.com/es/disenio-cuasi-experimental?gid=1606

[Eskuragarria 2014/03/02] <http://www.educa2.madrid.org/educamadrid/>

[Eskuragarria 2014/04/03] <http://www.monografias.com/trabajos75/enfoque-constructivista/enfoque-constructivista.shtml#ixzz32wQv>

[Eskuragarria 2014/04/03+] www.monografias.com/trabajos90

ERANSKINAK /ANEXOS

Eranskinak / Anexos	69
I. Eranskina: Irudiak aztertzen	70
II. Eranskina: Nire menua	73
III. Eranskina: "Gurbindo etxea" ateraldia	74
IV. Eranskina: Baratze plano	75
V. Eranskina: Konpostaia eskatu	76
VI. Eranskina: Baratze tresneria	77
VII. Eranskina: : Hamartarren ipuina	78
VIII. Eranskina: Problema ebazten	79
IX. Eranskina: Zer dakigu landareei buruz?	80
X. Eranskina: Landareen atalak	81
XI. Eranskina: Asmakisunak asmatzen	83
XII. Eranskina: Vegetables	84
XIII. Eranskina: Lulu and Lily story	85
XIV. Eranskina: Musika sortzen	86
XV. Eranskina: Landareen birsorketa	87
XVI. Eranskina: Hazien esperimeta	89
XVI. Eranskina: Zer eta nola landatu	90
XVIII. Eranskina: Baratzea lana antolatu	91
XIX. Eranskina: Berri kusten	92

I. Eranskina: Irudiak aztertzen



1. Zer ikusten da irudi honetan? Zer dago? Nolakoa da? Deskriba itzazue.
-
-



2. Eta honetan? Zer dakizue baratzeari buruz? Noizbait batean egon zarete?
-
-



3. Hemendik zer ateratzen da baratzetik? Hau.. ona da....? Eta hau? ...



4. Zer jaten ari da? Hau osasuntsua da? Zergatik?



5. Zer jaten ari da? Osasuntsua da? Nondik dator janari hau?

6. Badakizue nola landatzen diren barazkiak? Azaldu modu labur batez

II. Eranskina: Nire menua


Zer jan duzu?

EGUNA	ZER JAN DUT
Astelehena	
Asteartea	
Asteazkena	
Osteguna	
Ostirala	
Larunbata	
Igandea	

EGUNA	ZER JAN DUT
Astelehena	
Asteartea	
Asteazkena	
Osteguna	
Ostirala	
Larunbata	
Igandea	

IV. Eranskina: Baratze plano

Baratzeko plano



- Kokatu eguzkia non ateratzen den eta non ezkutatzen den "e" baten bitartez, eta eguzkiaren ibilbidea egin.
- Haizea non jotzen duen tokietan "h" bat jarri
- Non dago ur iturria? Kokatu "u" baten bitartez eta ondoren koloreztatu

V. Eranskina: konpostaia eskatu

Mankomunitateari eskutitza

Iruñeko Mankomunitatea

Data

Jaun agurgarria:

Amaiur ikastolako bigarren mailako ikasleak gara

Baratze bat martxan jartzen ari gara eta eskutitz honen bidez, hurrengoa eskatu nahi dugu:

Gure eskaera atenditu dutelakoan erantzunaren zain gelditzen gara.

Mila esker

Amaiur ikastetxeko 2.mailako ikasleak

VI. Eranskina: Baratzeko tresneria



- Pala eta palotea: Lurraren _____
- Aitzurra: Lurra _____
- Eskuarea: Belarra _____
- Soka eta adaskak: Lurzorua _____
- Eskorga: Ongarriztaketa _____
- Sardea: Belarra _____
- Ureztailua: Landareei _____
- Guraizeak: Adaxkak _____
- Jorraia: Bestelako lanak _____

VII. Eranskina: Hamartarren ipuina

Historiaurreko tribu batean gertatzen da istorioa. Goizero, tribuko talde bat zelaira lanera joaten zen. Tribuko kide bakoitzarentzat barazki bat hartu behar zuten baratzetik. Okerrik ez egiteko, hauxe esaten zuten: " letxuga hau Mirenentzat, hau Josebarentzat..."

Baina tribua handitu zenean, oso nahasgarria zen izen guztiez gogoratzea.

Pitagorinek, gerripekoa jantzi zuen lehenak, aurkitu zuen soluzioa. Harriz bete zuten zaku bat; harri bat tribu-kide bakoitzeko. Barazki bat hartzen zutenean, harri bat ateratzen zuten, zakuko harriak amaitu arte. Baina tribua oso ugaria egin zenean, nekosoa zen harriz betetako zakua eramatea ere.

Tribuko amona jakintsuarengana jo zuten, kontsulta egitera. Honela esan zien honek: "Harriekin, egin itzazue hamarreko taldeak. Hamar harriko pila bakoitzaren ordeztan, harri gorri bat hartu. Barazkiak harrapatu ahala, zenbatu atzamarrez, hamar baitira bi eskuetako hatzak, eta hamarrera iritsitakoan, harri gorri bat aterako duzue ..."

1. Jarri zaitetze hirunaka
2. Hamartarren ipuina berriro kontatu
3. Egin esazue ipuinaren marrazki bat

VIII. Eranskina: Problemak ebazten

1. Mintegi batean lordun 258 landare daude eta 365 lorarik gabeak. Zenbat landare daude guztira?

2. Gure baratzea martxan jartzeko, beharrezkoa dugun materiala erosi-ko dugu. Dendan galdetu dugu eta eskorga 75€ balio du, aitzur 15€ eta ureztontzia 8€.

a) Zenbat balio du guztia?

b) 100 €uroekin ordaintzen badugu zenbat bueltatuko digute?

3. Ikasle bakoitzak 4 landare jarriko ditu, gelan 23 ikasle gara.

a) Zenbat landare landatu dira?

b) Landareak hamarka banatzen baditugu, zenbat hamarreko izango ditugu?

d) Zenbat unitate bakarrik geratuko lirateke?


IX. Eranskina: Zer dakigu landareei buruz

1. Hemengo hitz batzuek zerikusia dute landareekin. Margotu hitz horiek

hazi	jaio	arnasa hartu	elikatu
------	------	--------------	---------

hitz egin	mugitu	hil
-----------	--------	-----


2. Zer behar dute landareek? Margotu.



3. Zergatik dira landareak izaki bizidunak? Markatu.


- Mugi daitezkeelako, animaliak bezala.
- Sortu, hazi eta ugaldu egiten direlako.
- Hainbat forma eta kolore dituztelako.

4. Ipini irudiak ordenan



X. Eranskina: Landareen atalak

LANDAREEN ATALAK



Landareek zenbait atal dituzte: sustraia, zurtoina eta hostoak.

Sustraiak lurpean dago. Landareak lurrari eust eta ura xurgatzeko balio du, baita landareak

behar dituen beste substantzia batzuk

(gatz mineralak) xurgatzeko ere.


Zurtoinetik adar meheak irten daitezke.


Hostoak zurtoinetik irteten dira. Berdeak izaten dira.

Landare askok loreak eta fruituak dituzte. Fruituen barruan haziak daude.

- Landare hauen atalen izenak idatzi


Hostoak - sustraiak - zurtoina - enborra - adarrak - lorea





- Lotu
Landarearen zein atalari dagokio bakoitza?

Hazia, zurtoina, hostoa, fruitua, sustraia



XI. Eranskina: Asmakisunak!

ASMAKISUNAK ASMATZEN!

- Baserrian jaioa, baserrian hazia, mozten duenari, bustitzen dio begia...
- Kanpotik berdea, barrutik gorria, botoiez betea jateko egokia
- Gordina entsaladan, bakailaoarekin saltsan, frijitua edo gazpatxoan, jan eta jan.
- Gizon zuria ohean ile berdeak airean eta bizarrak oinean
- Berde eta iletsua, barrutik berdeagoa. Australian bizi den txoria, badu izen berdina
- Berdea, gorria, horia, handia edo txikia, josatorduan edo postrean konpotan edo tartan jan daiteke martxan
- Buztana dut eta ez naiz txakurra, burua dut baina ez sudurra, hortzez beterik nago, zureak baino gutxiago
- Ameriketatik etorria, munduan naiz adoragarria, frijitua edo egosia, beti nabil zerbaitetan nahasia.

ORAIN ZUEK ASMA EZAZUE BATEN BAT!!

Kanpotik...


Barrutik...

Kolore....

Handia/txikia....

XII. Eranskina: Vegetable

- What kind of vegetables do you know? Write the name of them near the pictures



- -What kind of vegetables do you prefer? Or you don't like anyone?
- -Could you describe your favorite vegetable?

XIII. Eranskina: Lulu and lily story

- Listen and try to read this story

Lulu and Lily were two spinach plants who were born on the same vegetable patch. They had been friends all their lives. Together they had endured terrible frosts, snowstorms, and scorching hot summer days. Through it all they had always supported each other, looking forward to the time every spinach plant dreams of: the moment they are served on a child's dinner plate, the moment they get to pass on all their gathered strength.

So when harvest time arrived, Lulu and Lily were happy at being sent together to the spinach preparation factory, and then on to the packaging company and to the supermarket. At the supermarket they sat together, displayed on one of the very best shelves. They were both excited to see ladies passing by with their baskets. They were especially thrilled when any lady with a child came nearby. A whole day passed without anyone showing any interest in them, but just before closing time, a lady walked too close to their shelf, and without realizing, knocked Lulu off the shelf. Lulu fell to the floor, right in front of the lady, and the lady's foot kicked Lulu under the stack of shelves.

No one realized what had happened, and Lulu spent the whole night crying, knowing that she would be left under the shelves until she mounded away. Lily, very upset, regretted her friend's bad luck, but was unable to do anything. The next day, a lady with an adorable little boy seemed like she was going to buy Lily, but this did not cheer Lily up. She was thinking about her poor friend. In what was both a moment of madness and a moment of true friendship, she made one last attempt to help her lifelong friend. Just as the boy was about to grab Lily from the shelf, Lily threw herself to the floor and rolled under the shelves, ending up next to Lulu. The boy, surprised and amused, bent down and, without knowing it, picked up both Lulu and Lily.

Lily ended up with a pair of broken stalks, but it was a price worth paying to save her friend. And some hours later, sitting on a plate at Lulu's side, she felt like the happiest piece of spinach in the world, for managing to fulfill her dream alongside her best friend.

XV. Eranskina: Landareen birsorketa

LANDAREAK BIRSORTZEKO MODUAK

Haziak ereiten



Ezagutzen dituzun landare gehienak hazietatik lortzen dira: artoa, bitxilorea, babarruna, letxuga...

Anek artoa landatzen ari da. Lurzoruan zuloak egin ditu beraien artean distantzia txiko bat utziz, ondoren haziak hartu ditu eta barruan bi edo hiru hazi bota ditu, ondoren zuloak estaliz. Azkenik ureztatu ditu.

Eskolara ekarri dituzuen haziak erein lorontzietan.

Haziei ura bota ahaztu gabe!!!

Zer landareren haziak ekarri dituzue?

.....

Erraboiletik nator




Erraboiltxoak ere lorontzietan landatu al dira. Horretarako, sartu lurpean erraboil

batzuk (baratxuriak, hiazintoak, patatak, ezpata-belarrak, tipulak,...) Nahi izanez gero etxean egin!

- Zer gertatu zaie egun batzuk pasa ondoren?

.....

Adaxkak aldatzen



Igorrek arrosoari adaxka bat moztu dio eta lurrian landatu du. Beste landare batzuk ere modu honetan ugaltzen dira, esate baterako: mahatsa, krabelina, geranioa...

Baratzean hasten garenean moztu adaxka batzuk eta uretan jarri, ondoren ekarri adar batzuk eskolara eta sartu baratzearen lurpean azkenik ez ahaztu uraz botatzea eta denboran zehar ere ura bota.

Zein landareren adaxkak landatu nahi dituzue? Adostu klasean zer jarriko duzuen.

.....

- Bete itzazu testu honen hutsuneak

Haziak lurrera erotzean ura hartzen du eta handitu egiten da. Gero hazia ireki egiten da eta sustrai txiki bat ateratzen zaio beherantz. Ondoren zurtoina agertzen da. Azkenik zurtoin horretatik hostoak irteten dira.

XVI. Eranskina: Haziaren esperimentua

- Zer uste duzu gertatuko dela haziarekin?

	Behaketa1	Behaketa2	Behaketa3	Behaketa4	Behaketa5
Data					
Itxura					
Kolorea					
Mm/cmm					

- Marraztu ikusten duzuna behaketa bakoitzean eta erantzun

- Zer gertatu da? Berdina da hazi mota ezberdinetan gertatu dena?

XVII. Eranskina: Zer eta nola landatu?

1. Gure baratzea egiteko landatuko dituguna: 30 letxugak, 50 porruak, 50 tipulak eta 30 piperrak izango dira. Bakoitzaren kostua: letxuga guztiak 3 €, porruak 2€, tipulak 3€ eta piperrak 5€.

a) Zenbat balio dute barazki guztiak?

b) 50€ko billete batekin ordaintzen badugu zenbat bueltatuko digute?

2. Atera baratzekeo plano eta erantzun:

a) Zenbat alde ditu gure baratzeak?

b) Zenbat iskina ditu?

d) Zenbat angulo aurki ditzazkegu?

3. Barazkien arteko neurketa

XVIII. Eranskina: Baratze lan antolamendua

- Baratze batean ikusi ditugun lan zerrenda egin

- Antola ezazue hurrengoetan egin beharreko lanak

	Ureztatzea	Belarrak kentzea	Konposta ontziaren lanak	Barazkiak hartzea
Talde 1	X astea			
Talde 2		X astea		
Talde 2		X astea		

- Lan bakoitzaren lan zerrenda egin. Adibidez

Ureztatzea:

- ✓ Barazki guztiak ureztatu dira
- ✓ Urontzia bere tokian utzi dugu
- ✓ Zenbatean behin ureztatu da

Konpost ontzia:


- ✓ Itxita dago
- ✓ Ongarriari bueltak eman dizkiogu
- ✓ Ongarria konpost ontzian sartu dugu

...

XIX. Eranskina: Berrikusten!

IKASITAKOA BERRIKUSTEN

1. Idatzi zenbaki bakoitza bere lekuan.



- Landarea lurrean finkatzen du.
- Ura eta gatz mineralak elikagai bihurtzen du
- Landareari eusten dio
- Jatekoa da.

2. Ipinen esaldiak ordenenean.

- Urari, aireari eta eguzkiari esker, zurtoina apurka apurka agertzen da
- Loreak sortzen dira
- Hazia ireki egiten da, eta sustraitxoak irteten zaizkio
- Hazia lurrean ereiten da
- Zurtoinean hostoak hazten dira.

3. Margotu eta idatzi izenak.

